

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Klimaren eta Energiaren aldeko Konpromisoen Jardunaldira ehun bat toki-erakunde, espezialista eta enpresa bildu dira

Elizalde kontseilariak klima aldaketaren kontrako borrokan baterako ikuspegia eta ekintza azpimarratu ditu

Asteazkena, 2019.eko otsailak 20

Gaur goizean, Iruñeko Condestablearen jauregian, Klimaren eta Energiaren aldeko Konpromisoer buruzko Jardunaldia egin da, eta ehun bat pertsona bildu dira Nafarroako toki-erakundeen ordezkari, sektoreko enpresa eta energia eta klima-aldaketan espezialistak direnen artean. Jardunaldian, Alkateen Itunaren bitartez klima-aldaketaren



Elizalde kontseilaria eta jardunaldira bertaratutako kideak.

kontrako borrokan udalen eta kontzejuen partaidetza sustatzen duen ekimenaren edukia, baldintzak eta prozedura aurkeztu dituzte.

Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren proposamen bat da, toki-erakundeek beren plangintzan klima eta energiaren aldeko konpromisoa barne har dezaten bultzatzeko, Covenant of Mayors for Climate & Energy, "Klimaren eta Energiaren aldeko Alkate Ituna" europar ekimenaren metodologiari jarraikiz. Itun honen bidez, tokiko gobernuek berotegi-efektuaren gas-murrizketan jarduteko erantzukidetasuna beren gain hartzen dute eta klima-aldaketa arintzeko eta egoera horri egokitzeko nahiz energia-pobrezari aurre egiteko ikuspegia partekatzen dute.

Jardunaldiari amaiera emateko, Elizalde kontseilariak "klima-aldaketaren aurrean instituzioen, toki-erakundeen eta hiritarren baterako jarduera eta ikuspegia" azpimarratu ditu, eta baita "udalek eta kontzejuek daukaten zeregina ere; izan ere, haietako askok denbora daramate arazoa prebenitzeko, arintzeko eta egokitzeko lanetan."

Elizaldek Foru Gobernuaren estrategiaren eta lanaren barruan kokatu du ekimena, KLINA, Nafarroako Klima Aldaketaren ibilbide orrian [KLINA, la Hoja de Ruta del cambio climático](#). Zenbaitetan, proiektu eta araudietan zehaztuta dago, onartutako eta indarreko Hondakinen Legea [Ley de Residuos](#) kasu, eta, beste batzuetan, zirriborroa amaituta, partaidetza-prozesuari ekiteko prest, Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legea kasu.

Jardunaldia eta konpromisoa

Eva García Balaguerrek Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak hasi du bilera, eta klima-aldaketaren kontrako jardueran aurrera egin behar dela azpimarratu du: "Momentu hau funtsezkoa da, eta guztiok bat gatoz esku hartzea halabeharrezkoa eta premiazkoa dela esaterakoan".

Jarraian, Miguel Morcillok Europar Batasuneko klima eta energiaren aldeko Alkate Hitzarmeneko bulegoaren ordezkariak, Josep Rierak Melianako alkateak (Valentzia) eta Joxe Abaurreak Iruñeko Udaleko Hiri Bizigarri eta Etxebizitza Arloko zinegotziak hitz egin dute. Mahai-inguruaren ostean, Elizalde kontseilariak jardunaldia itxi du.

Klima eta Energiaren aldeko konpromisoaren bidez lehenbizi CO2 igorpenak eta negutegi-efektuko gasak % 40 inguru murriztu nahi dira udalerrian, hemendik 2030era, energia-eraginkortasuna hobetzearen eta energia-iturri berriztagarriak gehiago erabiltzearen bidez. Bigarrenik, erresilientzia areagotu nahi da klima-aldaketaren ondorioetara egokitzearekin. Eta, horren barruan aurreikusten da bi urteko epean gas-igorpenen inbentarioa, arriskuen eta kalteberatasunen azterketa eta klima eta energia jasangarrirako ekintza-plana egitea. Azkenik, bi urtez behingo egoeraren txosten bat egin nahi da, ebaluazio-, jarraipen- eta kontrol-xedeetarako.

Lan hori gauzatzeko, toki-erakundeek metodologiari nahiz euskarri teknikoari dagokionez Nafarroako Gobernuaren laguntza jasoko dute, udal-arduradunen talde batean, eta Iraunkortasunaren Nafarroako Lursarea Agentziaren eta NELS sarearen laguntza ere bai, gaiaren inguruan praktika onak, ezagutza eta baliabideak partekatzeak.